

# ALTZA PORRU!

2011ko ekaina / 41. zenbakia

EHTE Allemendi, 1 · 20800 ZARAUTZ · TEL.: 943 83 28 28  
www.trikitixa.net / www.trikimailua.com



Euskal Herriko  
Trikitixa Elkartea  
L.G.: SS-418-01

## NAFARROAKO XIV. TRIKITIXA EGUNA



Erronkari bailaran, Isaban ospatuko da ekainaren 19an, igandez, aurtengo trikitixa eguna. XIV. Edizio honetarako egitarau oparoa prestatu dute:

**10:30** Trikitilarien etorrera, ibaxaren herrietara.

**13:30** Topaketa Iزابako Garatxandi parkeko anfiteareoan.

**14:30** Herri bazkaria, Erminea frontoian.

**Bazkal ondoren**, musika, IZER eta ALABIER, IMANOL ASTIASARAN eta LUTXURDIO-ren eskutik.

**18:30** Kalejira erraldoia herriko kaleetan.

**20:00** Jai egunaren amaiera eta agurra.

## EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA EGUNA, EKAINAREN 4AN IZAN ZEN IURRETA-DURANGON

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak Jose Jabier Abasolo, *Tiliño* omendu nahi izan zuen lurretan eta Durangon egin zen Trikitixa egunean. Orain arte egindako lan mardulak duen garrantzia ikusita, eskerrak ematea izan zen goizean, lurretako plazan egin zen omenaldiaren helburu nagusia.

Bertaratu ziren lagun guztiek, lurretako dantzarien saioaz, Zabaleta eta Motrikuren emanaldiaz, eta Fredi Paia eta Eneko Abasolo Abarkasen jardunaz gozatzeko aukera izan zuen. Gainera, denek batera Oskar Estangak sortutako eta Fredi Paia hitzez jantzitako Tiliño kanta jotzeko parada ere izan zuten.

Omenaldi hunkigarriaren ondoren, Durangora joan ziren kalejiran. Bazkaria, Durangoko Landako gunean egin zen. Bazkal ostean berriz, taldeka soinua eta panderoa astin-



ARGAZKIA: ANTOR GOIA

duz aritu ziren mahai buelta ugaritan. Arratsaldean berriz, guztiek batera Tiliño kanta jo eta Fredi eta *Abarkasen* bertso saioaz gozatu ondoren, Gozategi taldearekin erromeria izan zen. Laguntzaile bat baino gehiago izan zuten oholtza gainean: Leturia panderoa jotzen, Xabi Solano soinua hartuta, edota hain ezagunak ez diren baina etorkizun oparoa izango duten gaztetxoak, panderoa astintzen. Giro alaia eta goxoa izan zen egun osoan zehar.

## DEBAGOIENAKO TRIKIXA EGUNA ARAMAION OSPATU ZUTEN

Maiatzaren 7an, Aramaio izan zen Debagoienako trikitilarien bilgune arrakastatsu. Goizeko hamaiketan plazan elkartu, hamaiketako egin eta ondoren, Aramaioko baserri-auzoak trikiti eta pandero doinuz alaitzera joan ziren, taldetxotan banatuta. Eguerdia pasatxo ordea, espreski prestatutako eskenatokian ekitalditxo egin zuten, eta bertan, zenbait trikitixa eskole-tako haurrek euren saio txoa eskaini zuten. Bazkalostean berriz, Gozategi taldearekin erromeria izan zuten.

## TRIKITILARI GAZTEEN GETARIAKO XII. TXAPELKETA

Maiatzaren 28an, larunbatez jokatu zen Trikitilari gazteen Getariako XII. Txapelketa, Euskal Jai egunaren egitarauaren barruan. 18 urte arteko bost bikote gaztek parte hartu zuten.

Getariako Udalak antolatutako txapelketa honetan, bost bikoteek egindako lanari esker, oso giro polita sortu zen. Bikote bakoitzak hiruna pieza eskaini zituen: Trikitia, Potpourria alde batetik eta Arin-arinaren, fandangoaren edota porrusaldaren artean aukeratu behar izan zuten.

Epaimahaikoek, piezen zailtasuna, bi kideen arteko bat egitea, kantua, dantzagarritasuna eta panderojolearen lana baloratu zituen. Lehen hiru bikoteek saria izateaz gain, Getariar bikote onenak ere jaso zuen bere saritxoak. Epaimahaia, hala erabakita, honela geratu zen sailkapena:



ARGAZKIA: IBON ERRATZU

**1 saria:** Itsaso eta Irune Elizagoien Bizente, ahizpak. (Etxalar, Nafarroa)

**2. saria:** Ander Beldarrain Tapia (Orio) eta Maria Lasa Hilario (Zizurkil)

**3. saria:** Irati Gutierrez Artetxe eta Amets Ormaetxea Ezpeleta (Arrasatekoak)

**Getariar bikote onenaren saria:** Maite Subijana Zendoia eta Leire Etxebrria Aizpuru.

# Disko berriak

## FABOREZ 05 DISKOAREN AURKEZPEN ERROMERIA, UZTAILAREN 4AN EGINGO DA, ZUMARRAGAN

Estudioko lanak amaitu dituzte jada, Faborez bildumako bosgarren alean parte hartuko duten kideek. Orain arteko ildoarekin segiz, **trikitilari gazteak pieza zaharrak jotzen** entzuteko parada eskainiko du bildumaren bosgarren ale honek. **Dantzarako piezak** bilduko ditu, sueltoan nahiz lotuan egitekoak.

Hernaniko *Oh brother!* estudioan Iñigo Egia teknikariaren laguntzarekin grabatu dute apirila eta maiatza artean eta, laster izango da kalean, Faborez 05 diskoa.

Honokoak lau trikiti bikoteek osatuko dute lana:

- Olarte eta Urdangarin.
- Elortza anaiak.
- Arkaitz Allur eta Idurre Arriola.
- Imanol II eta Izer.

Aurreko aleekin egin izan den moduan, diskoan bildutakoen **aurkezpen erromeria** ospatuko da. Aurten **Zumarragan** izango da primizia, **uztailaren 4an**. Diskoan bildutako pieza guztiak joko dituzte bikoteek hasteko eta ondoren, bikote horiek saio librean arituko dira.



## TXANKARTAREN INGURUKO LIBURU DISKOA ATERA DU ITZIARKO ANDUTZ KULTUR ELKARTEAK

Txankarta izaten du ardatz urtero, Itziarko erromeri egunak, orain bi urte, soinujole honen arira mahai-ingurua antolatu zuten. Iaz berriz, soinu handia izan zuten ildo nagusi eta aurten, Txankartaren liburu-diskoa kaleratzeko baliatu dute.

Txankarta, gerra ondorengo soinujolea izan zen. Soinu kromatikoa jotzen zuen. Sakabi, Elgeta eta Gelatxoren mailakoa zen eta erreperitorio handikoa. Itziarko Andutz Kultur Elkarteak berreskuratze lan handia egin du izan ere grabazio bakarra zeukan. 88 garren urtean, arratsalde batean egindako grabazioa hain zuzen ere. Bere bizitza eta ibilbidearen berri jaso du Joxean Agirrek, "Txankarta, itzalean geratu zen maisua" izeneko liburu-diskoan.



Liburu diskoa saltzeko eguna izan zen maiatzaren lehen eguna, erromeri eguna. Baina horrezaz gain, egun osoko egitarau bete-betea izan zuten.

Goizean goizetik kalejira Zubietako zanpantzarrekin, Hernaniko txistulariekin, albokari eta dultzainariekin eta Zabale eta Larrañaga, Jagoba eta Amets, Furundarena eta Telleria eta Ostolaza eta Pujana soinujoleekin. Itziarko eta Vianako (Nafarroa) dantzariak ere egun honetan partaide izan ziren. Bazkaldu

ondoren, arratsaldean musikari guztien artean osatu zuten hiru ordu pasako saioa. Gauean berriz, trikitalariak izan ziren bertaratuak dantzan jartzeko ardura izan zutenak.



## GALBAHEA

\* **Azkoitiko Pentekostetan omenaldia eskainiko zaie Laja, Poxpi eta Etxeberritxori:** (...) Urtero moduan, trikitixaren inguruan osatu dute auzoko festen egitaraua. Astearte bitrtean, lagunarteko jatorduak, elizkizunak eta erromeriak izango dira auzoan. (...) Urteroko ekitaldirik jendetsuena, igande arratsaldean izango da. Zortzi bikote ariko dira Martittekoko plazan, trikiti doinuak eskaintzen: Laja II.a eta Narbaiza; Xabier Zabale eta Larrañaga; Itzeder eta Joakin Egurrola; Jauregi eta Berastegi; Astiasaran anaiak eta Leire; Gari eta Iñaki; Monik Valor eta Eider Iraola; eta Mirari Azkune eta Aintzane Agirrebeña. Pentekoste festetako jaialdian, trikitilari edo musikariren bat omentzen dute urtero, eta aurten, Laja, Poxpi eta Etxeberritxori egokitu zaie auzotarren gorazarrea jasotzea.

Urola Kostako Hitza, 2011-06-09

\* **Fredi Paia:** "(...) Intentsitatearen dohaia dauka Tiliñok. Iurretakoa, Anboto eta Oizeko haizeek esaten dutena ulertzen dakien herri berezi horretakoa. Frankismoak kobazuloetan lurperatutako euskal musikaren sustraiak mendebaleko argitara ekarri zituen gizona. Maurizia pandero jotzailearen sukaldeko negarra zantzoz bihurtu zuen bibotea. Soinuari eta albokari zaharren etxeetan familia bete irribarrek besarkatzen duen bihotza.

Gai-jartzaileak ahalegintzen dira egoera animiko oso ezberdina eskatzen duen gairik elkarren ondoan ez ipintzen. Baina patuak ez du bertsolaritza modernoa ulertzen. Eta bihar Tiliñori omenaldia egingo badiogu ere, aurreko astean eroan zuen heriok Mari Tere. Bikotekide, ama, laster amama izango zena eta Tiliñok egingo dako berreskurapen lan erraldoiaren motore emozionala. Ez dut aurkitzen esker ona, iraganaren intentsitatea, etorkizun itxaropentsua eta galeraren hutsunea adierazteko gai den soinu piezarik, ez puntapiorik ez eta bertsorik ere.

Sortzeko, barrua kanporatzeko, emozioak elkarrengandik isolatzen irakatsi ziguten. Baina hau erreala da, sekula ahaztuko ez dugun Mari Tereren irribarrea bezain erreala."

Berria, 2011-06-03

## ZESUMA

### Trikiziok abeslari eta trikitilari berria izango ditu

Uda garaian, hango eta hemengo festetan plazak alaitzen aritzen den Trikizio erromeri taldeak abeslari eta trikitilari berria izango ditu hemendik aurrera. Etxe abeslaria izango dugu eta bestetik, Ruben Isasi trikitilari bestetik. Azken honen ordezkotz lanak egin behar izanez gero, Eneko Dorronsoro trikitilari izango da ohol-tza gainera izango dena.

Orain arte abeslari aritu den Xabi Arakamak ahots kordeetan dituen arazoak tarteko, taldea uztea erabaki ondoren, Iker Etxezarragak hartuko du abesteko ardura baina oraindik ere izango da honen alboan Xabi Arakama trikitilari ikusteko aukeraren bat edo beste, hiruzpalau erromeritan bera arituko baita trikitixa astintzen.

### Xabi Arakamak bakarkako bira egin du Atlantikoaren beste aldean

Estatu Batuak, Mexiko eta Cuba bixitatuz egin du bira. Lehenengo kontzertua Los Angeles-en eman zuen, Chino-ko Euskal Etxean, David Gorospe perkusio jolea ondoan zuela. Handik San Diegora joan zen eta ondoren Tijuana-n (Mexiko) eskeini zituen bere doinuak Xabik. Hurrengo egunetan Mexico D.F.-ra joan zen, baina hango kontzertua bertan behera geratu zen azken momentuan. Biraren azken egunak La Habanan (Cuba) eman zituen, bertan 4 emanaldi eskeiniak Beloki eta Jimmy (Itoiz taldeko baterijolea) lagun zituela. Bertako euskal komunitatearen Aberri egunean jo zuten apirilaren 23, 24 eta 25ean. Apirilaren 26ean berriz, munduan zehar ezagun eta famatuak diren Septeto Habanero taldearekin kolaboratu zuen Xabik, hain sona haundi eta mitikoa den Habanako EGREM estudioetako kontzertu aretoan. Aurreko lau urtetan bezala, Obrin Pas talde balentziarrean ere egongo da Xabi 2011 urtean. Otsaielan grabatu zuten beraien "Coratge" azken lana.

### Beste bat taldeak aurtengo udan erromeririk ez

Uda honetan atsedena hartzea erabaki du Beste bat erromeri taldeak eta oholztatik kanpo denboralditxo egingo dute. Hala ere izango da salbuespenen bat, izan ere Bilboko jaietan, baliteke kontzerturen bat ematea.